




Gabriel Urralburuk probokaziotzat jo ditu Allik esandakoak. JOXE

Elkarlanerako prest segitzen duela adierazi du Urralburuk

IRUÑEA

Juan Cruz Alli Nafarroako gobernuak herenegun esan zituenak probokaziotzat jo arren, elkarlanerako prest segitzen duela ziurtatu zuen atzo Gabriel Urralburu PSN-PSOeko buruak.

Gogoratuko denez, Nafarroako sozialisten buruak elkarriketarako eskaintza egin zion joan zen larunbatean UPNko Gobernuari. Juan Cruz Alli ontzat eman du eskaintza, baina sozialistei leporatu die Foru Haziendaren egoera kaskarra.

Urralburuk, berriz, ukatu egin du gaur egungo krisia bere Gobernuaren jardunaren ondorio denik. «Allik datuak faltsutzea ez dugu onartuko —azaldu zuen atzo—. Gezurra da 1991ko jardunaldian ez zela behar zen guztia ordaindu. Urte horietan guztia gaizki egin baziren Alli berak ere izango du nolabaiteko erantzukizuna, UPN eta PSOE hitzarmen bidez lotuta baitzeuden».

Sozialistaren iritziz, «Allik tentsioak sortu nahi ditu, baina ez gara bere joakoan sartuko. Gauza

guztien gainetik, Alli probokatzalea da. Bere alderdikideak probokatzen ditu eta orain PSOE urduri jarri nahi du. Baina guk ere ikasi dugu eta ez dugu lasaitasuna galduko».

Alliren kritika gogorrek adostasun giroari kalte egin diotela esan bazuen ere, Urralburuk lankidetzarako prest segitzen duela berretsi zuen. «Allik giroa berotu nahi izan arren, Pomes Ekonomia eta Haziendako sailburuak bestelako tonua erabili zuen igandean. Pomesek laguntza eskatu zigun krisia gainditzeko eta jarrera hori nagusituko dela espero dut. Guk behintzak ez diogu kasurik egingo Alliren berrikerari eta ahalegin handia egiteko prest gaude».

Hala ere, UPNren Gobernuari «txeke zuririk» ez diotela emango eta sozialisten lankidetzari nahi badu gastu politika aldatu egin beharko duela ohartarazi zuen Urralburuk. Honen iritziz, «uler-tezina den krisi egoera honetan funtzionarien soldatak % 18 igotzea. Gastu politika aldatzen ez badute, jai dugu denok».

Konstituzionalak Nafarroako PFEZaren kontra segitzen du

IRUÑEA

Nafarroako Legebiltzarrak onartutako PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) foru araren zenbait artikulua indar gabe utzi zituen Espainiako Auzitegi Konstituzionalak eta neurri horri eusteko asmoa agertu berri du, BOEk (Estatuko Buletin Ofiziala) jakitera eman duenez.

Espainiako Gobernuak presidenteari aurkeztu zuen Nafarroako lege horren zenbait artikuluren kontrako ezkonstituzionaltasun errekurtsioa, eta abuztuaren 26an erabaki zuen Auzitegi Konstituzionalak aipatutako artikuluen aplikazioa indar gabe uztea.

Egunotan aurkeztuko dio PPK errekurtsioa Polizia Legeari

F.I. / GASTEIZ

Partido Popularrak prest dauka dagoeneko Polizia Legearen kontrako ezkonstituzionaltasun errekurtsioa, eta oraindik aurkezteko data zehaztu ez duten arren egunotan egingo dute, Madrilen, Auzitegi Konstituzionalan. Aurkezteko epea datorren 11n amaituko da eta Jaime Mayor Oreja PPKo EAEko lehendakariak ziurtatu zuenez, epe barruan aurkeztuko dute errekurtsioa.

PPko agintariek ez zuten errekurtsioaren mamia argitu nahi izan, eta datu zehatzak Madrilen aurkezteko egunean eskainiko dituztela besterik ez zuten esan. «Errekurtsioaren haria lurralde historikoen berma instituzionala da, Polizia Legeari miñoen kasuan errespetatzen ez duena hain zuzen», esan zuen

HBk Administrazioaren ustelkeria salatzeke kanpainari ekingo dio

Josu Bergararen presentzia eskatu du Gasteizko Garraio Batzordean

Herri Batasunak Administrazioaren ustelkeria eta gaitasunik eza salatzeke kanpaina bati ekingo dio. Lehen ekintza gisa, HBk eskatu du Garraio Sailburuak Eusko Trenbideak-eko kontseilaria den Juan Antonio Uriarteren kargu bateraezintasunak azal ditzan Gasteizko Parlamentuan.

I.U. / BILBO

Herri Batasunak Administrazioaren ustelkeria eta eraginkortasun falta salatuko du era iraunkor batez. Tasio Erkiziak azaldutakoaren arabera HBren asmoa ez da alderdi bat edo besteraren kontra jotzea, Gobernuaren dauden talde politikoei erantzukizun politikoak eskatzea baizik.

Tasio Erkiziak Administrazio buruen «soldata eskandalagarriak» salatu zituen atzo. Buzuragi abertzaleak azaldutakoaren arabera Ardanza eta Ortuondo «Estatu espainiarrean ondoen ordainduta dauden lehendakari eta alkatea dira». Hala ere, kargu horien kudeaketa ez dela besteei baino «gardenagoa ez eta eraginkorragoa ere» gaitzetsi zuen lesakarrak.

Komunikabideetan egunero ustelkeria tantak ageri direla gogor ekarri ondoren, «instituzioetan dauden alderdiak elkarri estaltzen diotela» salatu zuen. Adibide gisa jarri zituen txanpon-makinak eta drogaren kasua. «Droga trafikoa goi mailako Polizia arduradunak inplikaturik



HBk erantzukizuna eskatu nahi die Gobernuko talde politikoei. GILLENIA

✓ **Ustelkeria «euskal gizartearen minbizia» dela adierazi zuen Tasio Erkiziak.**

daude» salatu zuen. Aldi berean «txanpon-makinetan EAJko goi karguak leporaino kakaztuta» daudela ziurtatu zuen Erkiziak.

Administrazioen laguntzak lortzeko «aholkularitza enpresa jakin batzuetara jo beharra» arbuatu zuen Erkiziak. Ustelkeria «euskal gizartearen minbizia» dela baieztatu zuen behin eta berri.

INTERPELAZIOA JOSU BERGARARI

Tasio Erki-
ziak Josu
Bergara Ga-
rraio sailburuari azalpenak es-
katu zizkion Juan Antonio Uriar-
teren ekinbidez. Herri Batasun-

nako parlamentariak aurkezturiko idazkian jakinarazten da Uriarte Eusko Trenbideak enpresa publikoko kontseilaria izateaz gain Tecnivas Consulting S.A. enpresako bazkide nagusia dela. Enpresa honek Asta, Unceta y Cia enpresaren bitartekari lana egin zuen, azken honek Administrazioarekin zeukan zorra kitatu eta 588 milioi pezetako laguntzak lortuz.

Gasteizko Parlamentuan aurkezturiko txostenean salatzen da baita ere Uriartek —Tecnivasen bidez— Tolosako Asuncion eritexa kudeatzen duela, Osakidetatik jasoz 636 milioi pezeta urtero.

Tasio Erkiziak Parlamentuan aurkeztutako txostenean jakinarazten da baita ere Tecnivasek —Eurodesk enpresaren bidez— 62 milioi inguru jasoz zituela dirulaguntza eta informe batzuen kontzeptuan.

Oiartzunen independentziaren aldeko ekitaldiak 14 eta 15ean

P.U. / DONOSTIA

Bai Independentziari taldeak bi eguneko egitaraua antolatu du Oiartzunen, ekitaldiak azaroaren 14 eta 15ean izango direlarik. Bermeo eta Etxarri-Aranatzekin batera, Oiartzun-iazko udazkenean independentziaren aldeko aldarrikapena onartu zuen lehen udaletako bat da.

Euskal Herriaren independentziaren aldeko ekitaldi hauen bidez «urriaren 18ko manifestazioaren izpiritua» plazaratu nahi dute antolatzaileek, egunkari honi adierazi diotenez. Urriaren 18ko manifestazioa 'Autodeterminazioaz burujabetza' izenburukoa izan zen eta Euskaria, Bai Independentziari, Herria

2000-Eliza, Abertzaleok eta Herrien Liga elkarteek antolatu zuten.

Azaroaren 14ean, larunbatean, 'Estaturik gabeko nazioen kantaldia' antolatu dute Madalensoro pilotalekuan. Bertan, Britainako Ar Re Yaquank, Kortsikako Cunquiso, Kataluniako Burriack Lliure eta bertsolariak eta txalapartariak izango dira. Hurrengo egunean, auzoetatik independentziaren aldeko ibilaldiak aterako dira eta eguerdian udaletxeen elkartuko dira. Bertan, 18ko manifestazioa antolatu zuten taldeen ordezkariak eta bestelako gonbidatuak izango dira. Herri bazkaria eta erromeria ez dira faltako azaroaren 15ean.